BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3472

EBAZPENA, 2015eko uztailaren 21ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinen bidez emendatzen baita unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako 2014-2015 ikasturteko deialdia egiteko aginduan adierazitako zenbatekoa.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko urriaren 22ko Aginduaren bidez, iragarri zen unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako 2014-2015 ikasturteko deialdia.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak programa honetara bideratutako 53.000.000 euro erabili dira jada, eta 1.400.000 euroko zenbatekoa egiten duten bekak eta laguntzak ebatzi gabe gelditu dira. Horrenbestez, beharrezkoa da zenbateko hura aldatzea, kontuan harturik, batetik, balorazio-batzordeak aurkeztutako esleipen-proposamena, eta, bestetik, 2014ko urriaren 22ko Aginduaren 2. artikuluan jasotzen dela artikulu horretan kontsignatutako guztizko zenbatekoa Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen bidez emendatzeko aukera, betiere aintzat hartuta ebazteke dauden emate-proposamena duten eskabideek dakarten zenbatekoa eta eskabideak ebatzi baino lehen egin beharra.

Ondorioz, eta Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzak proposatuta, honako hau

EBAZTEN DUT

Milioi bat eta laurehun mila euro (1.400.000) gehitzea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko urriaren 22ko Aginduaren 2. artikuluan esleitutako zenbatekoari; horrenbestez, deialdi horretarako, guztira, berrogeita hamalau milioi eta laurehun mila euro (54.400.000) erabiliko dira, 2015eko aurrekontu-ekitaldiaren kontura.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 21a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
OLATZ GARAMENDI LANDA.